ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2020ko abenduaren 2a, asteazkena • 137 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko azaroaren 24ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

— Foru dekretua:

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 37/2020 Foru Dekretua, azaroaren 24koa. Onestea Arabako Lurralde Historikoko Foru Ondareari buruzko martxoaren 27ko 11/2019 Foru Araua garatzen duen Erregelamendua, Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko ondasun eta eskubideak erregistroan inskribatzeari dagokionez.

— Erabakiak:

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 577/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako Batzar Nagusien arteko lankidetza hitzarmena sinatzea, ondasunak, bitartekoak eta zerbitzuak batera erabiltzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 578/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea Añanako Kuadrillarekin lankidetza hitzarmena sinatzeari "Busti Añana Euskaraz" programa finantzatzeko, eta dirulaguntza zuzena emateari 2020ko ekitaldirako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 579/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea Aiarako Kuadrillarekin lankidetza hitzarmena sinatzeari "Euskaraldia 2020: dinamizazio-zerbitzua Aiarako Kuadrillako 5 udalerrietan" programa finantzatzeko, eta dirulaguntza zuzena emateari 2020ko ekitaldirako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 580/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea Arabako Mendialdeko Kuadrillarekin lankidetza hitzarmena sinatzeari "Euskararen inguruan bat eginda" programa finantzatzeko, eta dirulaguntza zuzena emateari 2020ko ekitaldirako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 581/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea Gorbeialdeko Kuadrillarekin lankidetza hitzarmena sinatzeari "Gorbeiapeko gazteak, euskaraz!" programa finantzatzeko, eta dirulaguntza izenduna emateari 2020ko ekitaldirako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 582/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea Guardia - Arabako Errioxako Kuadrillarekin lankidetza hitzarmena sinatzeari, "Kalean bizi-bizi" programa finantzatzeko, eta dirulaguntza zuzena emateari 2020ko ekitaldirako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 583/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea Arabako Lautadako Kuadrillarekin lankidetza hitzarmena sinatzeari, "Lautadako batzar administratiboak eta ergoienak Euskaraldian" programa finantzatzeko, eta dirulaguntza izenduna emateari 2020ko ekitaldirako.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 584/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea "Venticlima SA" enpresari adjudikatzeari aire girotze instalazioak mantentzeko zerbitzua, hileko 7.018 euroan, BEZa barne, eta 2 urterako gauzatze epearekin.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Foru Gobernu Kontseiluaren 585/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onestea COVID-19ak Arabako merkataritza sektorean 2020ko ekitaldian sortutako inbertsioei aurre egiteko ezohiko laguntzen deialdiaren ebazpena.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 586/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Erabakitzea Armiñongo Udalarekin lankidetza hitzarmena izenpetzea, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeko arloan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 587/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Erabakitzea Berantevillako Udalarekin lankidetza hitzarmena izenpetzea, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeko arloan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 588/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundiek 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan ekonomiari eta zergei buruzko unitate didaktiko bat ezartzeko sinatutako hitzarmena berresten duen foru arau proiektuari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 589/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea aurrekontu aldaketarako zenbait espedienteri, funtsez hornitzeko "Politiken koherentziaren kontratua" partida sortu berria, Diputatu Nagusiaren Sailak eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 590/2020 Erabakia. Onestea aurrekontua aldatzeko hainbat espediente, "Zerga hezkuntzaren hitzarmena" partida sortu berria funtsez hornitzeko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 591/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea Konpromiso Kreditua birbanatzeko 31/2020 espedienteari, 1.658.475,00 euroko zenbatekoaz, gastuen egoerako "Tranbia Salbururaino eramatea CCA" partidan, aurrekontu esleipenak egikaritze aurreikuspenei egokitzeko, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 592/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea kreditu transferentziako 133/2020 eta 134/2020 espedienteei, 25.000,00 eta 90.000,00 euroko zenbatekoekin hurrenez hurren, funtsez hornitzeko "Landa herritarren prestakuntza eta gaitasuna" eta "Naturgolf SA: galerak konpentsatzea" partidak, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailak eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 593/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea 141/2020 kreditu transferentziaren espedienteari, 976.328,13 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko bidaiarien garraio publikoa finantzatzera bideratutako hainbat partida, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak eskatuta.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 594/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea norgehiagoka aske bidez dirulaguntzak emateko 2020ko deialdiko hirugarren esleipenari. Dirulaguntza horien xedea da Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzea beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei eta larrialdi obrei aurre egiten.

Foru Gobernu Kontseiluaren 595/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onestea abenduaren 27ko 850/2019 Erabakiaren bidez profesional autonomoei emandako dirulaguntzak ordaintzeko egiaztagiriak epez kanpo aurkeztea.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 596/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Egokitzea Gasteizko Udalarekin eta Euskal Trenbide Sarearekin sinatutako lankidetza hitzarmen administratibo, tekniko eta finantzeroaren esleipenak, Gasteizko tranbia Salburura luzatzeko lanak (2. fasea) finantzatu eta egiteko.

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 597/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea Aguraingo Udalarekin Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko sinatu den lankidetza hitzarmenaren baldintzak zehazteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 598/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea Dulantziko, Burgeluko eta Iruraiz Gaunako udalekin Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko sinatu den lankidetza hitzarmenaren baldintzak zehazteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 599/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea Aiarako Udalarekin Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko sinatu den lankidetza hitzarmenaren baldintzak zehazteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 600/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea Gaubeako Udalarekin etxebizitza komunitarioa kudeatzeko eta bere funtzionamendurako izenpetutako lankidetza hitzarmenaren baldintzak zehazteari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 601/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Onespena ematea Zigoitiko Udalarekin Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatu eta mantentzeko sinatu den lankidetza hitzarmenaren baldintzak zehazteari.

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 602/2020 Erabakia, azaroaren 24koa. Luzatzea Arabako Foru Aldundiaren eta Urbide, Arabako Ur Partzuergoaren arteko lankidetza hitzarmen tekniko eta finantzeroaren 2h) apartatua betetzeko epea 2021eko abenduaren 31ra arte.

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2020.12.02 06:24:33 Z